

HAMAR HATZ TTPI ETA HAMAR BEHATZ TTPI

Testua: MEM FOX

Irudiak: HELEN OXENBURY

Itzulpena: EVA LINAZASORO

Azal gogorrean egina. 27,5 x 23,5 cm. 40 or. 16,50 €.

Hamar hatz ttipi eta hamar behatz ttipi (euskara)

ISBN 978-84-9172-036-2. Gaur egungo klasikoak.

Diez deditos (gaztelania)

ISBN 978-84-8464-383-8. Clásicos contemporáneos.

Dez dedos nas mans e dez dedas nos pés (galegoa)

ISBN 978-84-8464-382-1. Tras os montes.

Deu ditets (katalana)

ISBN 978-84-16804-46-7. Clàssics contemporanis.

Dez dedos nas mãos e dez dedos nos pés (portugesa)

ISBN 978-989-749-100-9. Clássicos contemporâneos.

Behin batean bazen haurtxo bat

hemendik urrun sortu zena.

Eta beste haurtxo bat

hurrengo egunean bertan sortu zena.

Eta haurtxo horiek biek,

gertatu ohi den moduan,

hamar hatz ttipi zituzten eskuetan

eta hamar behatz ttipi oinetan...


“Hamar hatz ttipi eta hamar behatz ttipi” liburu irudidun goxoa da, oraindik irakurtzen ez dakitenei eta irakurle hasi berriei zuzendua.

Testu errimadun erraza du, egitura errepikakorra eta metatuz doazen esapideak. Munduko hainbat bazterretan sortutako haurrak erakusten dizkigu, elkarren arteko berdintasuna azpimarratuz: hamar hatz ttipi eta hamar behatz ttipi.

Testuaren erritmoak ozenki irakurtzera laguntzen du bai eta jendearen eskuhartzea ere.

Urruneko mendietatik gertuko eritetxe batera, artiotik basamortura, hiri batetik basora, Mem Fox-en lan honetako haurtxoak edozein kontinente eta hemisferiotako giza aniztasun etniko eta kulturalaren erakusgarri dira. Halaber, haurtzaroko inozentzia, berdintasun, naturaltasun, tolerantzia eta bizikidetzaren errazaren adibide dira, bizitzan aurrera egin ahala pertsonen artean sortzen diren oztopo eta aurreiritzi sozialen arrastorik gabe.

Helen Oxenbury-ren irudi figuratiboetan azpimarragarria da haurtxoen aurpegiaren espresibitatea bai eta beraien gorputzen dinamismoa eta interakzioa: irribarre eta jakinminezko keinuekin batera, jolasak edo besarkadak ageri dira. Umetxoek, irakurleak behin eta berriz interpelatzen dituzte begirada konplizeekin, beren hatzak eta behatzak erakusten dituzten bitartean. Amaren irudia ere azaltzen da, maitasunez eta ezintasunez beteriko orrialde hauetan.



- **Gaua:** giza aniztasuna, munduko bazter anitzetan sortutako haurrei esker.
- **Norentzat:** irakurtzen ez dakitenak, irakurle hasi berriak.
- **Alderdi azpimarragarriak:** errima, metatuz doan egitura errepikakorra; berdintasuna, aniztasuna; marrazki figuratibo eta espresiboak.

Mem Fox

(Melbourne, Australia, 1946)

Zimbabuen hazi zen, guraso misiolariak baitzituen. Antzerkigintza ikasi zuen Ingalaterran eta 1970ean bere jaioterrira itzuli zen, arrakasta handiko idazletzat bait daukate Australian. Egile honek haur eta helduentzako lan ugari idatzi ditu, herrialde askotan itzuliak izan direnak. Ia 25 urtez ihardun du Flinderseko Unibertsitateko Hezkuntza Fakultateko Literatur Ikasketetako irakasle elkartu gisa. Hainbat sari eta ohorezko doktoretza jaso du.
<http://memfox.com>

Helen Oxenbury

(Ipswich, Erresuma Batua, 1938)

Ipswicheko Arte Eskolan eta Londreseko Arte eta Diseinu Eskola Nagusian egin zituen ikasketak, azken honetan ezagutu zuen bere senarra, John Burningham, egile eta marrazkigilea. Antzerki konpainietan, ABC telebista katean eta Shepperton zine estudioetan aritu da disenatzaile eta eszenografia lanetan. 1967az geroztik ibilbide luzea egin du haur liburuak idazten eta ilustratzen. Milioika ale saldu ditu mundo osoan zehar. Birritan jaso du Katee Greenaway domina eta Kurt Maschler Saria, eta hirutan Smarties Book Saria, Liburuzainen Elkarte Britainiarraren aipua ahaztu gabe.



www.**Kalandraka**.com

comunicacion@kalandraka.com

www.**Pamiela**.com
etxea
soltxate@pamiela.com